



INFORMAZIO OROKORRA

- Jendaurreko komunikazio-egoerei (ahozko zein idatzizkoei, lan alorreko zein maila pribatuko zein) modu eraginkorren aurre egiten ikastea da ikastaroaren **helburu nagusia**. Komunikatzeko gaitasuna gizarteko arlo desberdinetan modu egokian elkar-eragiteko hizkuntzari buruz eduki behar diren ezagutzen eta erabilera-prozeduren multzoa da, eta jakintza horiek guztiak landuko dira.
- Helburu orokor hori lortuko bada, ordea, beste **bi helburu zehatzago** hauek lortzeko bideak landu behar dira nahitaez:
 - Jendaurreko **komunikazio-egoerei beldurra galtzea**: autoestima eta jarrera baikorra landuz.
 - **Diskurtsogintzan trebatzea**: ahoz zein idatziz (nondik hasi, nondik segi, eta nola bukatu, besteak beste). Azken helburu horretarako, erretorika klasikoaren marko teorikoa erabiliko da, gaur egungo diskurtsoetara libreki egokitua.
- Ikastaroaren informazio guztia hemen aurkituko duzu: <http://komunikazioa.asmoz.org/>

ZUZENDARITZA ETA IRAKASLEAK

Joxerra Garzia Garmendia: idazlea, kazetaria eta EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saileko irakaslea.

- Filosofia eta Kazetaritza ikasi zituen, Bartzelonan, eta doktore da Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Publizitatean. Hitza eta hizketa dira, oro har, Joxerra Garziaren langaiak.

EZAUGARRI OROKORRAK

HARTZAILEAK:

Jendurrean hitz egiteko komunikazio-gaitasuna hobetu eta landu nahi duen pertsona oro; mezuak ahalik eta modu eraginkorrenean adierazteko eta entzule-talde ezberdinen aurrean segurtasunez, ziurtasunez eta sinesgarritasunez mintzatzeko helburua erdietsi nahi dutenei zuzendua.

METODOLOGIA:

Praktikan oinarrituriko metodologia du ikastaroak; **Internet bidezko 15 ikastordu** eta **tailer praktikoak (16 ordu)** ditu. *Learning by doing* metodologiak praktikari lehentasuna ematen dio izena ematen dutenen parte hartze aktiboaren bitartez.

Ikastaroa 2014ko martxoaren 10ean hasi eta apirilaren 7an amaituko da.

Saio praktikoak Donostian emango dira, ondorengo ordutegian:

- 2014.03.14, 16:00-20:00
- 2014.03.21, 16:00-20:00
- 2014.03.28, 16:00-20:00
- 2014.04.04, 16:00-20:00

On line atalari dagokionez, ikasleak ezkutuko gako baten bidez ikastaroko web orrirako sarbidea izango du. Horrez gain, ikasleak ikastaroko irakasle laguntzaile baten etengabeko zerbitzu zuzen eta pertsonalizatuaz gozatzeko aukera izango du eta ikastaroari ahalik eta etekin handiena ateratzen lagunduko dio.



EGITARAUA

1. SARRERA: KOMUNIKAZIO ERAGINKORREN OINARRIAK

- 1.1. Komunikazio egoerak eta diskurtsoak
- 1.2. Zuzen-jatortasunetik egokitasunera: eraginkortasuna

2. TESTUGINTZA: TESTU HUTSEKO DISKURTSOAK. TESTUA OSATU ETA INDARTZEN

- 2.1. Osagaiak nola inguratu. Barruko eta kanpoko argudioak. Analogia eta beste
- 2.2. Diskurtsoari egitura egokia ematen: Kalkulu erretorikoa
- 2.3. Diskurtsoaren formulazio egokia: baliabide poetiko-erretorikoak

3. AHOTSAREN ALDERDIAK DISKURTSOGINTZAN

- 3.1. Norberaren esateko gaitasuna
 - 3.1.1. Ahotsaren alderdi mekanikoak lantzen
 - 3.1.2. Distantzia-erregistroa
- 3.2. Ahozko Testu Idatziak
 - 3.2.1. Netspeak: internet bidezko diskurtsoak

4. GORPUTZAREN ALDERDIAK DISKURTSOGINTZAN

- 4.1. Kokapena, gorputz jarrera eta keinu-imintzioen erabilera diskurtsoan
 - 4.1.1. Begiradaren kudeaketa
 - 4.1.2. Baliabide osagarriak ahozko diskurtsoan
- 4.2. Inprobisaziorantz
 - 4.2.1. Gidoi erretorikoa

5. KOMUNIKAZIO EKINTZAREN PLANIFIKAZIOA

- 5.1. Izuari neurria hartzen
- 5.2. Norberaren komunikazio gaitasuna nola ebaluatu
- 5.3. Komunikazio gaitasuna etengabe landu beharra: bibliografia eta beste

PREZIOA

Ikastaroak 390 eurotako kostua du ([Deskontuak](#)).

Tripartita Fundazioaren hobari-sistemaren barnean dago ikastaroa; besteen konturako langileei zuzendua - autonomoak eta administrazio publikoko langileak izan ezik.

ATOLATZAILEA



Idazkaritza eta informazioa

Asmoz Fundazioa
Asuncion Etxea
Jose Elosegi alkatearen hiribidea, 275
20015 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Telefona: 943 21 23 69
Faxa: 943 29 79 46
Posta: komunikazioa@asmoz.org